

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3847

32/2021 DEKRETUA, ekainaren 29koa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko kideak aldatzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 5. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da sindikatuen erakunde eta konfederazioek eta enpresen konfederazioek kontseiluan dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak hautatu ondoren; bestalde, lege horren 6. artikulua arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urtekoa izango da, eta ez da eragozpenik izango kide horiek berriro hautatu eta izendatzeko.

Agintaldia bi urtekoa izan arren, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 6.2 artikulua sindikatuen erakunde eta konfederazioei eta enpresen konfederazioei aukera ematen die kide titularrak edo ordezkariak aukeratu dituzten pertsonak aldatzeko.

Aipatutako lege-gaikuntzarekin bat etorritik, Euskadiko Langileen Batzordeen Konfederazio Sindikalak / CC.OOK lehendakariaren martxoaren 29ko 11/2019 Dekretuaren bidez izendatutako pertsona bat aldatu du, eta aukeraketa berria egitea erabaki du.

Horren ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Francisco Juan Osuna Matamoros jauna Lan Harremanen Kontseiluko kide titularra izendatzea, Euskadiko Langileen Batzordeen Konfederazio Sindikalak/CC.OOK aukeratu ondoren, Garbiñe Espejo Jairo andrearen ordezkari gisa.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 29an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.